



SAN PEDRO
JAIK
2013



OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!

ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI



MATRIKULA



Oso ondo pasá izana espero dugul!

**Goi-mailako
Erdi-mailako
HEZIKETA
ZIKLOAK**

**UZTAILAREN
8tik 12ra**

Energia eta ura



Mantenimentua



Mekanika



Elektrizitatea



Administraritza

e-mail: eskola@lhusurbil.com

Etarte bidea 9 (Zubieta) 20170 USURBIL - Tel.: 943 364 600


Maite



ETELU



FESTETAN ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!!



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**



**Aralar plaza 4 behea • Las arte-Oria
Tel.: 943 364886 • Faxes: 943 372117**

Lasartoriatik egunerokotasunera...



Ederki jantzi eta guztia prest jaiei eta dantzari hasiera emateko. Gazteek ostegunetik astelehenera ederki gozatu dute.

Amaitu dira San Pedro jaiak. Lau egunetz gure herrian alaitasuna eta jai giroa izan dira nagusi. Sorgin Jaietako txupinazotik zezen suzkora arte adin guztietarako ekintzak izan dira Lasarte-Oriako Udalak, Sorgin Jaiak edo herriko tabernek antolatuta. Erdi gunean ez da atsedenik izan, goizeko lehen orduetik gaueko ordu txikiak arte beti egon da zerbait egin edo ikusteko. Ekintzarik ez bazegoen ere, barrakak zeuden. Aipatzekoa izan da, gaueko giroa. Ostegunean, gazteak izan ziren nagusi, Skakeitan, Unsain anaiak eta Pistoletak taldeen emaldietan. Ostiralean, berriz, Gozategi-ren doinuek Okendo plaza jarri zuten dantzan. San Pedro egunean ere ordu txikiak arte izan ziren herritarrak estilo ezberdinetako kontzertu eta DJ-etaz gozaten. Igandean erromeri doinuek izan ziren nagusi eta ABIBA disko festak eman zion astelehenera amaiera aurtengo jaiiei. Orain egunerokotasunera buelta.

**hurrengo
zenbakia**

txintxarri

Uztailaren 8an

**Informazio gehiago txintxarri.info
orrialdean edo sare sozialetan**

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Eizaguirre, Jon Altuna I.,
Maider Azurmendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñioa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpirtarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz



Lehenengoak Sorgin Jaiak

Festak hasteko, ohi bezala Sorgin Jaiak izan ziren goiztiarrenak. Pijama egunarekin hasi zuten egitaraua eta koadrilen jaitsierarekin. Loidibarrendik abiatuta herriko kaleetan barrena ibili ziren Okendon txupinazoa botatzeko elkartu arte. Pijamekin batera, blusak nagusitu ziren jaien lehenengo egunean.



Koadrillei omenaldia.- Txupinazoa bota aurretik koadrilen jaitsiera egin zuten gazteek Loidi-Barren frontoitik abiatuta. Horrela gazteak giro onean herriko kaleetan barrena ibili ziren euren blusa koloretsuak erakutsiz. Okendo plazan txupina bota eta Sorgin Gunea ireki zuten. Aurtengoan Sorgin Jaiak koadrilak omendu nahi izan dituzte "inurri txiki, nekaezin eta ixilak" hauen ordezkartizan Lorena Garciak piztu eta Iker Serranok jaurti zuen jai herrikoiei hasiera eman zien txupina. Ane Labaka eta Enara Ilegirik irakurri zuten pregoia eta honetan omenduentzat hitz onak izateaz gain, festak hasi baino lehenagoko gauean Sorgin Gunean gertatutako lapurreta salatu nahi izan zuten errespetua eskatuz.





alustiza

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak, S.L.



SAN PEDRO
JAIK
2013

**ASKO DISFRUTATU IZANA
ESPERO DUGU!**

Palazio etxea, Laurgain auzoa • AIA
Tel.: 943 132893 / 830808
Mobila: 656 782999



Festa giroa.- Gauean kontzertuak izan ziren Okendo plazan. Lehenengoak oholtzara igotzen Skakeitan taldekoak izan ziren, ostean Unsain Anaiak eta Pistoletak azkenik. Lehenengoek ska doinuak ekarri zituzten eta Unsain Anaiekin erromeria eta dantza izan ziren. Festari bukaera emateko Pistoletak. Gazteek hartu zuten plaza festen lehenengo egun honetan. Ederki dantzatu eta parranda luzatu zuten ordu txikiak arte.

Gazteak dantzan jarri zituzten Unsain Anaiak eta taldeka zein bakarka aritu ziren.



Okendo plazan sekulako festa giroa izan zen.



Tabernetan ere kontzertu eta Djak.- Besteak beste, Zulo aretoan Txoni + Julen K DjK aritu ziren musika jartzen. Hauetara ere asko izan ziren gerturatutako herritarrek.

cannes
Donde las estrellas son ellos

Txakurrentzako ileapaindegia

#SPJ2013 Txakur eta katuen denda

OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!

Green enparantza 2 behea (Urbarteko parkearen parean)
Lasarte-Oria 20610
Tel.: 943 576313
info@canneslasarte.com
www.canneslasarte.com



SUGATE SUKALDEAK

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!

SAN PEDRO JAIK 2013



Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net



Ekainaren 28a

Ostiral eguerdian bigarren urtez, gaztetxoek eman zieten hasiera San Pedro festei. Aurten Beltzakeko gaztetxoak arduratu ziren pregoiaz eta zuziria jaurtitziaz. Arratsaldean Sorgin Dantza, udalaren bigarren txupina, zikiro afaria, danborrada, Gozategi, Karaokea... denetarik izan zen festei hasiera biribila emateko



Beltzakeko gaztetxoak- Julen Espinosaren ardura izan zen pregoia irakurtzearena, txupina botatzeko ordea talde kide baten laguntza izan zuen. Espinosak Beltzaken dauden 70 gaztetxoentzat izan zituen hitzak eta haur zein helduak gonbidatu zituen errugbian eurekin hastera. Zuziaren hotsarekin batera ikusleak dantzan jarri ziren txarangaren doinuek lagunduta. Beltzak eta Lasarte-Oriako bandera lau haizetara astindu zituzten Pablo Barrio alkateak eta Beltzak taldeko beteranok.

Txupina botatzearekin batera festa hasi eta Okendora eramán zen.

García
AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2. A
(Leku Eder etxea)
Tel.: 943 372737
20800 ZARAUTZ



SAN PEDRO
JAIK
2013

OSO ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!

- Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak.
- Bestelako zerbitzuak.



Biyak Baten kontzertua.- Lasarte-Oriako erretiratuez osatutako Biyak Bat elkarteko abesbatzak kontzertu ederra eskaini zuen Manuel Lekuona kultur-etxean. Eskaini zuten abesti sorta zabalean Lasarte-Oriako himnoa aipagarriena. Okendon Castellerrak ikusteko aukera izan zen baita buruhandiak besteak beste txupinareen ostean.



Herrira elkartearen bazkaria Okendon.- Ehun pertsona inguru elkartu ziren Lasarte-Oriako Herrira elkarteak antolatutako bazkarian. Hau Okendo plazako arkupetan egin zen ostira-lean haur txupinareen ostean eta menuan, entsaladaz gain, Martin Berasategiren jatetxeko sukaldariak prestatutako barazki eta oilasko paella. Bertan bildutakoek bikaina zegoela adierazi zuten eta giro onean egin zen bazkaria.



ZUBIETA MOTOR

Zubieta Motor Autocentro Gipuzkoarekin elkarlanean, **salmenta** eta **salmenta ondorengo** marka berriak aurkezten dizkizue



OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU !

SAN PEDRO JAIK 2013



Mota guztietako ibilgailuak konpontzen ditugu

Oria etorbidea 4, 6. lokala • LASARTE-ORIA Tel.: 943 376940 / 360009 • Faxa: 943 372689



Busti Blai.- Haur txupinazoaren ondoren, Ttakunek antolatutako makarronada eta ur jolasetan haur askok hartu zuten parte. Kalejiran Atsobakarreko parkera iritsi ziren eta bertan makarroiak tomatearekin jan zituzten lagun artean. Behin bapo bazkalduta, jolastera ekin zioten eta honetan ur jolasak izan ziren nagusi. Egun eguzkitsua lagun, haurrek primeran pasa zuten Busti Blai!! ekingintzan parte hartzen, goitik behera busti arren oso pozik azaltzen ziren. Urtero harrera oso ona izaten duen ekingintza da honek.



Sorgin Dantza.- Parte hartze altuenetarikoa Sorgin Dantza izan da aurtengoan bitzitakoa. Oriako auzoan txiki geratu zen eliza ondoko plaza dantzari guztiak jasotzeko. Behin herriko kaleetatik abiatuta dantzariak euren trebezia behar bezala erakusteko aukera izan zuten. Heldu zein gaztekoen zortzikoteek gidatu zituzten dantzari guztiak Okendo plazaraino. Bertan ez zegoen ia lekurik, azken dantza eta kalejira izan ziren arratsaldeko txupina bota baino lehen. Bitxikeria moduan, Oregondik iritsitako bikote bat ere izan zen tarteka dantzarien artean erritmoa jarraitzen saiatzen. Lasarte-Oriako Sorgin Dantza errotuz doa urtetik-urtera.



M. Berasategi

Kafeak



1961 SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU

Beti dago aukera kafe on bai hartzeko



Nespresso kafe-makinekin bateragarriak diren kapsulak

BERRIA!




INFUSIOAK

- TE BREAKFAST
- TE TXURIA
- TE BELTZA
- TE GORRIA (Pu-Erth)
- TE BERDEA
- TE EARL-GREY
- TE JAVA
- TE CEYLAN
- TE SAPOREAREKIN e.a....

TEINA GABEAK

- MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOBOS, e.a...



KAFE ARABIKOIA

- PARACATU (Brasil)
- TARRAZU (Costa Rica)
- Betiko KOLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316

20160 LASARTE-ORIA



Oregondik iritsitako bisitariak dantza egiten saiatu ziren.



Arratsaldeko txupinazoa.- Udaletxe berriko balkoitik jaurti zen hirugarren eta azken txupina. Goizean haurrak izan ziren protagonistak eta arratsaldekoan berriz, aurtengo hiru elkarte omenduak. Lasarte-Oriako Udalak aurten Alboka Abesbatza, Beltzak Errugbi taldea eta Solaskideak omendu ditu. Udaletxe berriko balkoitik lehenengoa hitza hartzen Pablo Barrio alkatea izan zen. Ondoren, Beltzakeko gaztetxoak goizean egindako aldarriari eutsi zion eta herriko gaztetxoak gonbidatu zituen Beltzaken parte hartzera. Alboka Abesbatzako Iker Olanok, Oihana Diazek, Mari Karmen Arratibelek eta Iñigo Sternek bertso bat abestu zuten eta Solaskideek berriz, hitz politikak izan zituzte euren bidelaguntzat, euskaldun zaharrentzat eta hauek ere aitortu zuten euskaldun berriek egiten duten esfortzua. Ezusteko moduan, Euskararen Maratoiko "Bero-bero" kanta jarri eta plazan bildutakoei dantzarako gonbita egin zieten. Zuziriak eztanda egitearekin batera, festa lehertu zen Okendon.



**INTZA
ELKARTEA**

JAI ZORIONTSUAK IGARO IZANA ESPERO DUGU!!!





Sagardotegi kalea • LASARTE-ORIA Tel.: 943 361 534



Zero Sette akordeoi orkestraren Jai Band-aren emanaldia izan zen Okendon txupina bota eta berehala.



Herritarrek plaza bete zuten jai ei hasiera emateko.



Elegancia Mexicana taldearen doinuak entzun ahal izan ziren Andatza plazan txupinazoaren ostean.



Zikiroa prestatzen aritu ziren arratsalde guztian guerako prest egon zedin.

Usla  Garajea
MEKANIKAKO ZERBITZU OROKORRA



SAN PEDRO JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Jaizkibel plaza 2, beheha • Tel.: 943 370203 • LASARTE-ORIA

ABREU



ONDO IGARO IZANA ESPERO DUGU!

#SPJ2013 



Geltoki 2 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365846

LIBRERIA MAITE



ONDO IGARO IZANA ESPERO DUGU!

#SPJ2013 

Geltoki 12 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 372791



Ttakunek antolatutako zikero afarian 220 herritar izan ziren eta guztira 175kg haragi jan ziren.



Omenaldia Felix Telleriari.- Danborradaren zuzendari da Telleria. 40 urte daramatza zuzentzen eta 30 San Pedroetan. Ibilbide luzea saritzeko Xabier Mitxelena danborradako kideak Pablo Barrio alkatearekin batera sari bana eman zioten eta emozio handiko momentuak bizi izan ziren.



Danbor joleek ohiko ibilbidea egin zuten herriko kaleetan barrena. Herritar asko zain zituzten danbor eta kupela joleek Okendo plazan.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Solomoa baratxuritan  ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!

Odolkia- Solomo ontzutua  Tripakiak- Saltxitxak

Etxeko txorizoa  Basurde burua

Txistorra  Baserri pateia

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

adats

ile-apaindegia

ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!



Geltoki kalea 3
Mobila: 600 523988
LASARTE-ORIA

JAIETAN ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

Bizikleten salmenta eta konponketa 

MKL txirrindak

Geltoki kalea 25, atzealdea tel 943 36 16 14
Lasarte Oria 20160 



Andatza plazan DJ lehiaketa egin zen goizeko ordu txikiak arte.



Okendon berriz, Gozategi talde mitikoak kontzertua eskaini zuen eta jendez lepo egon zen plaza.



Adin guztietako herritarrek Gozategiren doinu ezagunekin dantzara animatu ziren.



Parrandan jarraitu nahi izan zutenek Karaokearekin gozatu zuten.



Gazte zein helduek Okendoko oholdzara igo ziren banaka zein taldeka atzo eta gaurko kantak ahal bezain hoberen kantatzera.





**OSO ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU!**

RUIZ

FRUTA DENDA

SAN PEDRO
JAIK
2013

Geltoki kalea 16 • Tel.: 943 361304 • LASARTE-ORIA

Ekainaren 29a San Pedro eguna

Giro ederra izan zen San Pedro egun osoan zehar Lasarte-Oriako kaleetan. Herritarrek eguraldi onaz eta ekintza, zein kontzertuez ederki gozatu zuten goizeko lehen ordutik gaueko ordu txikiak arte. Honetaz gain, Beltzak Errugbi taldea, Alboka Abesbatza eta Solaskide programa omendu zituen Udalak.



Amalur trikiti eta pandero eskolako txistulariek Lasarte-Oria esnatu zuten San Pedro egunean.



Herritar ugari bildu zen San Pedro eguneko mezan. Patxi Etxeberria bertsolaria eta Alboka abesbatzaz gain, Erketz EDT-k ere parte hartu zuen. Hauek agurra eta Corpusa dantzatu zuten.

Fernández
e h u n a k



Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!

OSO GNDQ PASA IZANA ESPERO DUGU. SAN PEDRO JAIK 2013 

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

OSO GNDQ PASA IZANA ESPERO DUGU!

Etorri gure jaki goxoak probatzera



VIÑA DEL MAR
TABERNA-KAFETEGIA

Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

LAGUNAK



LAGUNAK
ELEKTROTARTE DENDA

OSO GNDQ PASA IZANA ESPERO DUGU!

Etxebizetako eta komertzioetako...

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Geltoki kalea 6, behea
Tel.: 943 371077
LASARTE-ORIA



Tolosako Kilometroak-eko lagunek postutxo bat jarri zuten Okendo plazan.



Kaleak girotzeko banda berezi ugari izan ditugu egun hauetan gure herrian.

Giro ederra eta kirola.-

Lasarteoriarrak kalera atera ziren San Pedro egunean eta kirol erakustaldiak ikusi zituzten. Elizatze plazan, batetik, harrijasotzaileak, aizkolariak eta trontzalariak, eta bestetik jarduera bereziak: aizkolariak tente jarritako enborraren puntan, aitzurrarekin egurra moztzen eta motozerrarekin trebetasuna erakusten. Bukaeran, herritarrek trontzarekin aritzeko aukera izan zuten. Bestalde, Loidi-Barrengo pilotalekuan junior eta senior mailako pilota partidak izan ziren. Lehenengoan Intza elkarteko Axier Arteaga eta Aritz Solano izan ziren garaileak, 22-20, Amezketako bikotearen aurka. Senior mailan, Sancho usurbildarrak eta Urruzola asteasuarrak Larrañaga azpeitiarraren eta Altuna berrobiararren aurka jokatu zuten.



Pilota erakustaldi ederra eskaini zuten junior eta seniorrek Loidi-Barrengo pilotalekuan. Irudian, Solano, Erasuskin, Arteaga eta Zubiria.



Herri kirolek ere jende ugari bildu zuten Elizatze plazan. Besteak beste, aizkora eta harri-jasotzen aritu ziren. Kirolariak aho zabalik utzi zituzten bertan bildu ziren haur eta helduak.

kima



masaje-lekua



JAI ZORIONTSUAK IGARO IZANA ESPERO DUGU!

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197
LASARTE-ORIA

Goyo Martin
Xabier Carbayeda



Erketz EDT-ko lagunek Erraldoien dantza eskaini zuten omenaldiari hasiera emateko.



Estixu Garmendiak eta Mailu Arrutik Solaskide programa azaldu zuten umorezko antzelerarekin.



Beltzak Ostadar Gure Etxea taldeko kadeteek mele bat eta alboko sakeak egin zituzten.



Alboka Abesbatzak Sorgin dantza eta Porrusalda abestiak eskaini zituen jaiak girotzeko.



Omenaldi xumea.- Zero Setteren akordeoi doinuez eta Erraldoien dantzaz hasi zen omenaldia. Ondoren, Pablo Barrio alkateak gure herriaren alde lan egin duten Solaskide programa, Alboka Abesbatza eta Beltzak Errugbi taldeari aitortpena egitea ohorea dela adierazi zuen. Solaskideak igo ziren oholtzara eta parodia txiki bat egin zuten euskaldun zahar eta berriak barne hartzen dituen programaren inguruan. Beltzak Errugbi taldeak eta Alboka Abesbatzak haien trebezia erakutsi zuten eta hitz batzuk ere eskaini zituzten eskertza modura. Beltzak taldeak Imanol Uribe "Porru" eta Jesus Erro ekarri zituzten gogora eta Albokak haien artean ez dauden abeslari eta lagunak. Amaieran, Lasarte-Oriako ereserkia jo zuten eta udal ordezkariak igo ziren oholtzara.



Errazioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Entsaladak

Arkupe
taberna

facebook.com/ArkupeTaberna

**ASKO DISFRUTATU
IZANA ESPERO DUGU!**

**SAN PEDRO
JAIK
2013**

Tel.: 943 37 17 42

Largonea Kalea, 1
20160 Lasarte-Oria



San Pedro egunean ederki ibili ziren haurrek Isla plazan jarritako Irrien lagunen haur parkean.



Sorgin Jaietako lagunek bisitariak izan zituzten larunbatean, Lesakako gazteak.



Gonbidatuak, bazkaria eta bertso-saioa.- Sorgin Gunean ere hainbat ekintza burutu ziren San Pedro egunean. Gazte bazkarian bapo amaitu zuten guztiek eta bazkal oste ederra izan zen bertso-saio mundialarekin. Honetan Alaia Martin, Beñat Gaztelumendi, Oier Aizpurua eta Maddiane Txoperenak gazteek aukeratutako ariketa ezberdinak egin behar izan zituzten. Jarraian, Dinbi Banda batukadaren erritmo martxosoarekin poteoa egin zuten. Gainera bisitariak izan ziren, Lesakako gazteak gonbidatu baitzituzten sorgin jaietara. Hauek sorgindu eta ekintzez gozatu zuten.



Gazteek gaiak aukeratu zituzten Sorgin Jaietako bertso-saioan.



Dinbi banda batukadak erritmoa jarri zion arratsaldean koadrilen poteoari.



SAN PEDRO JAI ZORIONTSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU ! SAN PEDRO JAIK 2013



Saustatxo

Kultur Elkarte





Uzturre plaza 8 • Tel.: 943 364942 • 20160 LASARTE-ORIA




Aterpea Merkatarien elkarteak sardina jana antolatu zuen larunbatean. Arratsalde osoan zehar herritarrek sardina gozo gozoak dastatu zituzten, ardoarekin lagunduta.

Arrats eta gau ederra.- Giro ederra izan zen larunbat arratsaldean. Aterpea elkarteak antolatutako sardin janera herritar ugari hurbildu ziren. Elizatze plazan Trapu zaharrak antzerki taldeak Gezurtiak kale antzerkia eskaini zuen. Barre eta algara ugari izan ziren bertan bildu ziren haur eta helduen artean. Arratsaldea ederki amaitzeko, Okendo plazan salsa doinuak izan ziren Lasarte-Oriako Son Kandela taldearen eskutik. Eta Manuel Lekuonan bertso-saio ederra izan zen.



Son Kandela herriko taldeak dantzan jarri zituen Okendoko ikusleak.



Manuel Lekuonan San Pedrotako bertso-saioa izan zen. Lujanbio eta Egaña txapelak ikusteko aukera paregabea izan zen.



aniversario urteurrena
ALBOKA
Abesbatza
LASARTE-ORIA

Haurrentzat ere
ALBOKA TXIKI Abesbatza



OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU !

SAN PEDRO JAIAK 
2013

Gustuko al duzu abestea? Zatoz gure artera!

Tel.: 678 397334
Lasarte-Oria



Isla palzan ederki dantzatu zuten Tsunami orkestraren eskutik.



Anai arrebak taldeak bere doinu berritzaileak ekarri zituen Okendo plazara.

Parrandarako mota guztietako doinuak.- San Pedro egun handiari dantzatzuz esan zioten agur lasarteoiatarrek. Parrandarako gogoia erakutsi zuten eta kaleak jendez lepo izan ziren. Festaz gozatzeko musika ezberdinak egon ziren San Pedro eguneko kontzertuetan. Gaueko 23:00 aldera hasita, dantzaldia izan zen Tsunami orkestraren eskutik Isla Plazan. Okendon berriz, Anai Arrebak taldearen kontzertua, Zo-Zongo batukada taldearen Kolpez Blai ikuskizuna, Blues Thorpes eta gainera festarekin amaitu nahi ez zutenentzat Djak. Gaupasa ederra egin zuten herritar askok.



DJ Makalaren saioaz gozatu ahal izan zuten Jalgi-kafe antzokian.



Zo-zongo batukadaren "Kolpez blai" ikuskizunak herritarrei erritmoa eman zien parrandan jarraitzeko.



Blues Thorpes taldeak blues doinu ederrak eskaini zituen, Dj-ak baino lehen.




SAN PEDRO JAI ALAITSUAK PASA IZANA ESPERO DUGU!

SAN PEDRO JAIK 2013



LASARTEARRA

KIROL ETA KULTUR ELKARTEA

Erribera kalea 10, atzealdea • Tel.: 943 362997 • LASARTE-ORIA

Ekainaren 30a

Igandean mota guztietako ekintzak izan ziren haur zein helduentzat. Goizean goiz hasita bakailao txapelketa egin zen Sorgin Jaien baitan, Ttakunek Kantujira berezia antolatu zuen eta ohiko kantekin batera dantza plazak dantzariak ere aritu ziren elkarrekin. Toka, Bolo eta esku pilota txapelketak ere egin ziren. Haur danborradak ez zuen hutsik egin urteroko hitzorduari eta jendetza hurbildu zen gaztetxoak herrian zehar egindako ibilbidean ikustera. Arratsaldean erromeria eta sagardo dastaketa izan zen Okendo plazan hau ere Ttakunek antolatuta. Ellas bailan solas antzerkia ikusteko aukera izan zen Elizatze plazan eta Bollywoodeko dantzak ekarri zituzten Andatza plazara Raat Ki Rani taldeko kideek. Gauean Isla plazan Azabache taldea aritu zen festa girotzen eta Okendo berriz, Boston Jaien erromeria izan zen parrandazaleen festa gogoari eutsiz.



Kantujira berezia antolatu zuen Ttakunek. Kantuak plaza dantzarekin uztartu ziren.



Bakailao goxoa Kike Llanos eta Aitor Unanuek egindakoa zela erabaki zuen epaimahaik.



Buruntzapi elkarreak ere saria jaso zuen Bakailo txapelketan.



TRUMOI
TABERNA

**OSO ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU !**

#SPJ2013

Hipodromo etorbidea 3 • Lasarte-Oria





Pilota txapelketak Loidibarrenen.- Benjamin mailan, Mikel Markos eta Beñat Carbayeda izan ziren garaile; alebinetan Eneko Del Puerto eta Roke Etxezarreta; infantil mailan, berriz, Julen Alberdi eta Alex Etxeberria. Azkenik, veteranoen txapelketan, Jesus Presa eta Joxe Felix Solano izan ziren irabazleak. Joxe Felix Solanok Juan M^o Arteagaren lekuan jokatu zuen azken orduan. Bolo eta toka txapelketak ere egin ziren bolatokian eta Okendon.



Haur danborradak kaleak hartu zituen.-

Gaztetxoek kupelak eta danborrak ederki astindu zituzten herrian zehar egindako ibilbidean. Oria Txarangak jarri zuen musika, eta besteak beste Lasarte-Oriako ereserkia, Tatiago edota Donostiako martxaren gisako klasi-koak jo zituzten. Gainera, Jalguneko lagunek ez zuten hitzordu garrantzitsu hau galdu nahi izan. Okendon bitartean, Hutsun txalaparta taldeak kontzertu didaktikoa eman zuen. Haientzat txalapartaren sehaskan egotea ohorea bat zela aipatu zuten eta Zuaznabar familiari eskaini zioten saioa. Txalaparta tradizionala, kirrikoketa eta egungoa uztartzeko saiakera polita izan zen. Herriko bolondres gazteak ere izan zituzten laguntzaile ohotza gainean Hutsunekoek.



Aitor oholtzara igo zen Hutsunekoekin txalaparta jotzeko.

LASARTE-ORIATHARROK
OSQ, OSQ ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU !

Jalgune



Elkartea

#SPJ2013



Bekokale bidea 1 2. solairua • LASARTE-ORIA



Sorgin Gunean mus eta eskoba txapelketak egin ziren.



Oriako jaitsieran eguraldiak ez zuen asko lagundu eta ohi baino koadrila gutxiago ikusi ziren uretan. Lehorreratzen lehenak Aitor Sanz eta Jon Pello Artetxe izan ziren Mikel Bermejoren aurretik.



Oria ibaiaren jaitsiera eta xexenak. Oriako jaitsieran eguraldiak ez zuen lagundu eta beste urte batzuetan baino koadrila gutxiago animatu ziren uretan sartzera. Hala ere, egin zutenek primeran pasa zuten aurrez prestatutako mota guztietako ontzien gainean. Atsopakarren berriz, xexenen aurrean jartzeko aukera izan zuten gazte zein helduek. Jendetza egon zen ikusten eta ez hainbeste xexenen aurrean korrika. Sorgin Jaietan ere, mus eta eskoba txapelketak jokatu ziren eta musean Eider eta Xabier Prada aita alabak izan ziren garaile.



#SPJ2013


JAI ZORIONTSUAK IGARO IZANA ESPERO DUGU!

BURUNTZ-AZPI

ARRANTZA ETA EHIZA
ELKARTEA



Basaundi bailara 9
Tel.: 943 370685
LASARTE-ORIA



Buruhandi eta erraldoiak txarangarekin batera herriko kaleetan barrena aritu ziren igande arratsaldean. Haurrek korrikaldi politik egin zituzten beruhandien kolpeetatik ihes egiteko.



Sagardoa eta Dantza.- Ttakunek urtero antolatzen duen sagardo dastatzea izan zen Okendon igande arratsaldean. Postu ezberdinetan banatuta herritarrek Lasarte-Oriako bost sagardo dastatu ahal izan zituzten nahi bese-tetan. Plazan ere, Jon Landa tratamendu behar duen herriko haurraren aldeko pintxo postua egon zen eta bertan salgai txistorra eta tortilla pintxoak, sagardoarekin laguntzeko primerakoak. Oholtzatik berri, erromeriako dantzak gidatzen aritu ziren Maider Oiarzabal eta Dabid Egizabal. Herritar asko animatu zen dantzara eta giro polita sortu zuten nahiz eta hasieran lotsati azaldu ziren ikusleak. Hainbat euskal dantzarekin batera, munduko beste doinu batzuk dantzatzer a ere ausartu ziren Egizabal eta Oiarzabalen azalpenak jarraituz. Plaza erdian, haur, gazte zein heldu eskutik helduta dantzan ikusi ahal izan ziren. Erromeria eta sagardo dastatzea hau bukatu arte luzatu zen, aurtengoan litro gehiago ekarri zituen elkarateak 350.



A. Arregi

 #SPJ2013 eraikuntzako materiala
 ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU!
 BILTEGI NAGUSIA ERAKUSKETA
 Oria etorbidea 6 Goikale 2
 Tel.: 943 366473 Tel./Faxa:
 943 370998 943 365947



lasarte iberikoak
 OLEOTEKA
 JAI ZORIONTSUAK IGARO IZANA ESPERO DUGU!!
 Geltoki 4 behea
 Lasarte-Oria
 Tel.: 943 249743



UDA BERRI
Taberna
 SAN PEDRO JAI ONAK PASA IZANA ESPERO DUGU!
 Golf plaza 7, behea
 Tel.: 943 370410
 20160 LASARTE-ORIA



"Eilas Bailan Solas" antzerkiarekin ederki gozatu zuten herritarrek.



Indiako dantza sensualak ekarri zituzten Andatzara Raat Ki Rani taldekoek.



Azabacheren emanaldian batez ere jende heldua dantzan ikusteko aukera izan zen.



Boston Jai taldearen emanaldia gaztetxo zein helduen gustukoa izan zen.



SEMBLANTE ANDALUZ

#SPJ2013



SAN PEDRO JAI ALAIAK
PASA IZANA ESPERO DUGU!

Golf plaza 2
Lasarte-Oria
Tel.: 943 363699

AIZPURUA

Pinturak

#SPJ2013

JAIETAN ONDO IBILI IZANA ESPERO DUGU!

* Pintura plastikoak bereziki.
* Nahi duzun kolorea egingo dizugu momentuan.

Zuma buruko industria Ilea
LAS ARTE-ORIA
Tel.: 943 362153



ALAMANDEGI


TABERNA - JATETXEA

#SPJ2013

SAN PEDRO
JAIK
2013

**SAN PEDRO
JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!**

Tel.: 943 362849
ZUBIETA (Gipuzkoa)



Uztailak 1

Astelehenean mahuka izan zen haurrentzat. Herriko neska-mutilek jolasten pasa zuten eguna: goizean, bolotan eta tokan Okendon, goiz eta arratsaldez, Andatzako haur parkean eta Okendon zurez egindako jokoetan, eta eguerdian buruhandiekin erraldioen kalejiran. Gainera, herri jolasak antolatu zituen Ostadarrek arratsaldean, jumping, giza futbolina eta beste jolas batzuk jarri zituzten kale nagusian, apar festa izan zuten bukatzeko, disko festa iluntze eta gauean Okendon eta suzko zezena gauerdian Kale Nagusian.



Tokan eta bolotan jolasten ikasteko aukera izan zuten eguerdian Okendon.



Andatza plazako haur parkean zezen mekaniko, puzgarri eta beste hainbat jolas jarri ziren goiz eta arratsaldez herriko neska mutilek gozatzeko. Zalantzarik gabe, oso ondo pasa zuten.



Erraldoi eta buruhandiek kalejira egin zuten astelehen eguerdian txarangarekin batera.



Birziklatutako zurez egindako jostailuak.- Lasarte-Oria eta inguruko herrietako neska-mutilek egur birziklatuarekin egindako hainbat jokuekin jolasteko aukera izan zuten goiz eta arratsaldez Okendo plazan. "Más Madera" izeneko egitasmoaren baitan gazte- txoek hartu zuten parte jostailuak egiten, gero, haurrek horiekin jolasteko aukera izan zuten. Jokoak harrera oso ona izan zuen haur eta helduen artean.



ARRIESKALLETA #SPJ2013
ELKARTEA

SAN PEDRO JAIK OSO ONDO IGARO
IZANA ESPERO DUGU!

Kale Nagusia 10 behea
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943-249305






Apar festan gozatu ederra hartu zuten herriko haurrek Elizatzean.



Ostadarrek antolatutako herri jolasek arrakasta izan zuten Kale Nagusian.



Astelehen arratsaldean Andatzen, Okendon eta Kale Nagusian jolasteko aukera izan zuten neska-mutilek. Irudietan Jumping-a, porteria puzgarria eta giza-futbolina.

Eskerrik asko guztioi
360 egun besterik
ez dira falta
hurrengo San Pedroetarako

Ai, Sanpedro,
Sanpedro,
astero
balego...





LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

guztiona

Xaralphoto 

Zure neurrira egindako ezkontza saioak

OSO ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU !

Kale Nagusia, 44 Lasarte-Oria Tf: 943248755
www.xaralphoto.com







Rockalean: ezuztea eman zuen musikari taldeak Sagardotegi kalean. Ez zegoen jaietako egitarauan sartuta, baina jende ugari bildu zuen jaietako azken egunean eta oso ondo pasatu zuten.



Astelehen gauean, 23:00etan jaurlti zituen Zaragozana Pirotekniak suak. Gero, gauerdian, zezen suzkoa ibili zen kale nagusian gora eta behera festei amaiera emateko.



Gauean, festak amaitzeko, batetik ABIBA disko festak segi zuen Okendo plazan eta Andatzen, aldiz, ikuskizun bikaina eskaini zuen Jamaica orkestrak.

#SPJ2013

CASA EXTREMADURA

JAI ALAIK PASA IZANA ESPERO DUGU!

Adarra 4 • Tel.: 943 372375
20160 Lasarte-Oria



VIRGEN DE GUADALUPE



Herria bizirik dago

Lasarte-Oriaren taupadak ozen entzuten dira, sasoiari dago. Jende ugari aritzen da ikasturte osoan zehar lanean herria bizirik mantendu eta giroa sustatzeko asmoz. Baina herriko festetan beste dimentsio bat hartzen du. Honatx zenbait adibide.



Danborradako kantineren lau-haizetara haizatu zituzten bandera koloretsuak, ikurrina ere haien artean zela.



Aitor Landaren senide eta lagunek postua jarri zuten pintxoak saltzeko.



PSE-EEren tortila txapelketako garaileak E.Avila, S. Bazo eta C.M. Bermejo.




Txema Valles kazetariak ere lana majo egin zuen, kamera eskutan, ohi bezala.



Joseba Iparragirrenen koadrila blusa urdinak soinean irribarretsu, Andatza Plazan ateratako argazkian. J. IPARRAGIRRE



Okendo Plaza izan da festaren erdigunea, baina inguruak ere jendez lepo egon dira. Sagardotegi Plaza, Kale Nagusia...



Begiristain eta Aristondo mikroa hartuta, karaokean.

GURE ETXEN TABERNA
 #SPJ2013
 OSO QNDQ PASA IZANA ESPERO DUGU!
 Goizeko 6-retan irekitzen dugu
Gosariak Pintxoak
 ...
Nagusia 14 Lasarte-Oria
Tel.: 943 374244

Iturgintza Urbasa
Iturgintza Berogailuak Energia berriztagarriak Gasa
 OSO QNDQ PASA IZANA ESPERO DUGU!
 #SPJ2013
 Txartel Kalea 17 4.B • Lasarte-Oria
 Tel.: 647 821364 • infourbasa@gmail.com

BIYAK BAT
 #SPJ2013
JAI ALAIAK PASA IZANA ESPERO DUGU!



Jaietako postu koloretsuak jendez gainezka egon dira, Brigitarren komentuen aurrean, ibai aurreko paseoa...



Okendo plaza adin-tarte guztietako jendearen topaleku izan zen.



Barrakek ere gaztetxoenen beharrak asetu dituzte, igela, autotoxokeak...



Herriko haurrek korrikaldi ederrak egin zituzten buruhandien maskuriengandik ihesi.



Jenny eta Jon piratak Oriako jeitsiera arriskutsua bukatu berrikan.

MEKANIKAKO TAILERRA


SAN JOSE-OLAIZ

OSO ONDO PASA IZANA
ESPERO DUGU !

- Kamioien txasia konpontzeko oinarria.
- Industriako ibilgailuen konponketa.
- Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.



LOMBARDINI



IVECO

ZERBITZU OFIZIALA



DIMETAL S.A.

Ordutegia: 8:30 - 20:30

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160 LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxe: 943 366508



Lanean ere ondo pasa daitekeela erakutsi zigun Nagorek.



Pituren "Jalapeños" koadrilak ere primeran igaro zituen festak, gazteek gauari atera zioten zukua gehienbat.



Sorgin Dantzako karrozaren traktorea bateria gabe geratu zen, eta "Ttakunfurgoak" jarri behar izan zuen martxan.



Idoia, herriko bandera eskutan, haur danborradaren buru.



Taxioren lagunek ere festez gozatzeko aukera izan zuten.



Biyak Bat elkarteak antolatutako mugimendu eta mahai-jokoko saribanaketaren talde-argazkia.



eztipphoto

Golf plaza 4 behea
Atsobakar. Lasarte.
Tel: 943 900 565

www.eztipphoto.com

- Ezkontzak
- Bideoa
- Jaunartzeak
- Haur eta familia argazki sesioak
- Modelo Book-ak

— Agenda —

Osteguna 04, Okendo plazan, 22:00etan



“Bypass” Udako Zinean

Okendo zinema taldeak antolatuta, Udako zinema zikloa martxan jarriko du “ByPass” filmarekin. Maria bihotzetik gaixo dago eta hiltzera doa. Xabi, lagun bat, Bartzelonatik etorriko da azken agurra ematera. Bidean, Maria beraz maiteminduta dagoela jakiten du, eta pozteko, gezurra esan eta bera ere hala dagoela kontatzea erabakitzen du. Gezur horrek sor dezakeen nahaste-borrastea ikusgai izango da Okendo plazan pantaila handian. Eguraldi txarra eginez gero, Elizatze plazako txapelan egingo da. Euskaraz

Asteazkena 17, 12:00etan

Etxeko txikientzat ZooZoom kale antzerkia izango da. Familia osoari zuzendutako kaleko ikuskizunaz gozatzeko beste era bat proposatzen digu, partaidea, dibertigarria, interaktiboa, harrigarria.

Erakusketa

JALGI KAFE ANTZOKIAN
Uztailak 16ra arte

Unai Azkarate bergararraren “Soinuak kolore bihurtzen” margo erakusketa ikusgai.

Tailerra

ATSOKAKAR PARKEA – UNTZIA

Larunbata 13, 10:00etatik 13:00etara

8 eta 14 urte arteko gaztetzarentzat baratza tailerra egingo da.



Lasarte-Oria

Zinea

OKENDO PLAZA

Osteguna 18, 22:00etan

Udako Zine zikloaren barruan, “El Caballero oscuro” filma eskainiko dute, Okendo zinema taldearen eskutik. Gaztelaniaz.

Larunbata 6, 00:00etan

“Disco Bambinos” Djak *back to tactel* saioa eskainiko dute.

Ostirala 12, 00:00etan

Reggae, dancehall eta jungle doinuak A Rasta K DJ-aren eskutik.

Larunbata 13, 00:00etan

VV-ko Sho-Hai-k hip hop doinuak ekarriko ditu Zulo aretora.

ATSOKAKAR ZAHAR EGOITZA

Asteazkena 10, 17:30ean

“Gurekin gozatu uda berezi honetan” egitarauaren barruan, Jose Mari Soroa-ren, Nagusilaneko bolondresaren, ekitaldia izango da.

Antzerkia

OKENDO PLAZA

Ostirala 12, 22:00etan

“Entre Lombrices” kale antzerkia eskainiko dute Zanguango teatro taldeko lagunek. Antzerkiaren kontzeptu berria ekarriko dute Okendo plazara.



Musika

ZULO ARETOAN

Ostirala 5, 00:00etan

Leku DJ-ak punk & roll saioa eskainiko du.

WIKIPIEDIA

amaraun

Kuadrilla Kooos

txintxarri

SAN PEDRO JAIK 2013

TTAKUNEKO KIDE GUZTIEN PARTETIK

SAN PEDRO JAI ALAIK PASA IZANA ESPERO DUGU!

TTakun


SOCIEDAD CULTURAL

UDABERRI elkarte

#SPJ2013

JAIK PRIMERO IGARO IZANA ESPERO DUGU

Andatza plaza z/g, behea
Tel.: 943 371983
LASARTE-ORIA



ILLARRETA

ITURGIINTZA

ASKO DISFRUTATU IZANA
ESPERO DUGU !

info@illarreta.com



TAILERRA ETA BULEGOA:
Ugaldea polig. 8 • Tel.: 943 361752
USURBIL

ERAKUSKETA ETA DENDA
Geltoki kalea 21 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363147



- Zink, berun eta arbelean eraikuntzak eta konponketak
- Instalazioak: garbitzeko ura, berogailua, gasa, zoru bero-emalea eta aire girotua
- Erakusketa eta salmenta: aparatu sanitarioak, kanilak, komuneko altzariak, manparak eta osagarriak

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen eta lokalen berrikuntza osoa
- Gremioen kordinazioa
- Arreta pertsonalizatua




jaiagi

KAFE-ANTZOKIA

HERRIKO FESTETAN
ONDO PASA IZANA ESPERO DUGU !

KONTZERTUAK
ANTZERKIAK
GIRO PAREGABEA, PINTXO GOXOEKIN



GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024



JAI ZORIONTSUAK
PASA IZANA
ESPERO DUGU!!



IZARRA
BITXITEGIA

www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384

Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.I.E.

